



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

GSEF 2018: Genero-berdintasuna eta Gizarte-Ekonomia

Ekonomia- eta gizarte-eredu inklusiboaren aldeko adierazpena

Joan den martxoaren 8an, mundu osoko milaka emakumek inoiz ez bezalako greba orokorra egin zuten; izan ere, enpleguan ez ezik, zaintza-lanetan eta kontsumoan ere izan zuen eragina lanuzteak, gizaritari erakusteko emakumeak planto egiten dugunean, munduak dar-dar egiten duela.

Genero-berdintasuna bermatzeko eta gure bizitzetan eragiten duten indarkeriak erausteko premia aldarrikatzea zen greba horren helburua, eta manifestazio jendetsuak egin ziren. Bilbon ere, mundu osoko hiri askotan bezalaxe, genero-desberdintasunak desagerraraztea eskatzeko manifestaldiak emakumez, eta gizonez ere bai, bete zituen gure kaleak.

Gizarte-ekonomia ez dago, eta ezin da egon, aldarrikapen horietatik kanpo. Izan ere, gure enpresa- eta erakunde-eredu ugariaren balioetako bat genero-berdintasuna da. Kasu askotan ez da asmo hutsa, benetako egoera baizik, egunez egun emakumeek lortu dutena.

Dena den, gizarte-ekonomiako erakundeak genero-berdintasunaren alde aritu arren, azken urteetan bide horretan aurrera egin bada ere, eta nahiz eta emakumeek egunerokotasunean kemena eta erabakitasuna erakutsi, oraindik ere badira lortu beharreko helburuak.

Jakina, generoan oinarritutako botere-harremanak errepikatu egiten ditugu, sarritan konturatu gabe. Halaxe gertatzen da, nahiz eta gure proiektu ekonomikoak eta profesionalak pertsona guztiengan ardaztuta egon, eta nahiz eta aukera-berdintasuna eta ekitatea gizarte-ekonomiaren funtsezko zutabetzat hartu.

Elkartasuna, lankidetzeta eta demokrazia gizarte-ekonomiaren funtsezko balioak dira, eta genero-berdintasuna dagoeneko bermatuta eduki beharko genuke, gizarte-ikuspegitik inklusiboa den ekonomia-eredu baten baitan.

Era berean, emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko, ezinbestekoa da gizarte-ekonomiatik eta gure balioak oinarri hartuta pauso garrantzitsuak ematen hastea. Beraz, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Lan-merkatu inklusiboa sustatzea, aniztasuna eta desberdintasunak aintzat hartuta, pertsona guztientzat aukera-berdintasuna eta kalitateko enplegu duina bermatuko duena. Diskriminazio-modu guztiak irmotasunez arbuiatzea; izan ere, bizi-baldintzak hobetzeko nahitaezkoa baita garapen-eredua emakumeen berdintasunezko partaidetzan oinarrituta egotea. Gure lan-prozesuak aldatzea, lan produktiboak ez ezik ugaltze-lanak ere aintzat hartzeko, guztiek egiten baitute posible eta iraunkor ekonomia. Eta, halaber, zaintzen ekonomia- eta gizarte-balioa kontuan hartzea eta aitortzea. Indarkeria matxisten aurrean arbuioa eta gaitzespena adierazteko protokoloak eta berehalako erantzunak sortzea, portaera horiek behin betiko erazteko gure erakundeetan eta gizarte osoan. Ordainsarrietan eta erabaki-organoetako ordezkarietan berdintasuna sustatze aldera, gizarte-ekonomiako erakundeen jardunbideak hobetzeko lan egitea, soldata-arrailek edo kristalezko sabaiak desagerrarazita. Gizarte-



BILBAO2018

GLOBAL SOCIAL
ECONOMY FORUM

ekonomia etorkizuneko hirien zutabe bihurtzeko helburua bultzatzea, berdintasunezko bizikidetzarako guneak eta herritar inklusiboak susta ditzan. Geure ingurua sentsibilizatzea eta kontzientzia kritikoa piztea. Ahaldundu, hezi eta gaitzea toki guztietan, gizarte-ekonomiaren barruan eta kanpoan, genero-berdintasuna exijitzeko.

Eta ez ahanzte a gizarre-ekonomiak, izatekotan, ekonomia feminista, ekitatiboa, solidarioa, iraunkorra eta parte-hartzailea izan beharko duela nahitaez!

